

## PRENTSARAKO OHARRA

18/06/25

### **Teresa Laespada Foru Diputatuak Gizarteratze Zerbitzuaren Gazte Estrategia barria aurkeztu dau Batzarretako taldeen aurrean**

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun diputatua Batzordearen aurrera etorri da gaur goizean, helburu nagusi moduan adinez nagusi diran gazteen arteko gizarte bazterketa kasuei arreteta eskaintzea duen estrategia barria azaltzeko. Estrategia horrek, aurretik egindakoa eta esperientzia barneratzen dituan arren, lehenengo programetarik lehentasuna gaztearen beraren erabagiteko gaitasunari emongo deusan arreta integraleko strategiara igaroten da.

Estrategia Gaztea, Aldundiko arduradunak azaldu dauen moduan, adinez nagusi diran gazteak heldutasunerako bidean babesteko dago diseinaita, euren bizitzako proiektuak martxan jarri ahal izateko behar besteko autonomia maila gauzatzeko laguntzak emonez.

Estrategia barria, “Ume Zerbitzutik datozen eta egoera zaugarrian dagozan adinez nagusiei” eta bazterketaren balorazinarako tresnaren bitartez Aldundiko Gizarteratze Zerbitzuetara heltzen diran personei dago zuzenduta.

Lehenengo kasuan dagozanei jagokenez, Diputatuak adierazo dau Gizarteratze Sistemari sartzeari “saltu handia” dala, erabagiak hartzeko ohitura eskasa eta enplegua eskuratzeko ia ezintasun praktikoa kontuan izanda. “Lana lortzeko, gehienetan oraindino gauzatu ezin izan dituen koalfikazio mailak eta trebezia profesionalen eta personalen garapena eskatzen da”, adierazo dau Laespadak. Bigarren kasuan, euren ahaldunderako laguntza behar daben edo emakumearen kontrako indarkeria egoerak jasan dituen emakume gazteakaz egiten da behar, batez be. Horri jagokenez, estrategiak berak jasoten dauen genero ikuspegiaren presentzia balioztatu dau diputatuak.

Bizilekuagaz lotutakoak ez diran programak indartzeaz gain, Estrategia Gazteak, laguntza bako adinbako etorkin izan ziranek osatzen daben taldearen emantzipazio prozesuei emon beharreko laguntzako ildo espezifikoa be proponiduten dau, Laguntza hori, emantzipazio prozesua zaildu egiten daben traba burokratiko-administratiboak kentzen zentrauko da.

Aurrera eroango diran beste ekimen batzuk honeek izango dira: ostatu emote independenteak, Aisiarako Agentzia eta aniztasunaren laguntza edo laguntasun akademikoa unibersidade mailan, Arrakasta programaren bitartez. Diputatuak, prestakuntza praktikoa barru hartuko daben laneratze programen aldeko apustua be azpimarratu dau. Horreen artean lehenengo Enplegu Azkargailua martxan jarri izana azpimarratu behar da.

Jarduketa horreek gauzatzera zuzendutako baliabide ekonomikoak 5.410.000 eurokoak dira, egin beharreko orientazio barriak egin ostean. Gizarteratze Zerbitzuaren eta

Emakume Zerbitzuaren plaza kopuruaren baturak be gora egingo dau, 162 plazatik 302 plazara igaroz.

Taldeen esku-hartze txandan, Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkariak, gazteak lan munduan sartu ahal izatearen beharra azpimarratu dau, eta Lanbide Heziketan Arrakastaren antzeko programa bat egitea proponidu dau; Eduardo Andrés Talde Popularreko batzordekideak, bere aldetik, informazino guztiz barria danez, bere taldeak Diputatuak gaur esan dauena aztertuko dauela esan dau, baloretako eta aurrerago ekarpenak egiteko.

Eneritz de Madariaga Podemos Bizkaia taldeko ordezkariak, genero ikuspegiaren inklusioa edo Arrakasta programaren jarraipena modu positiboan balorau arren, generako gauzen artean “ez dagola ezelango barrikuntzarik” adierazo dau. Batzordekidearen kritiketako bat, eguneko zentro kopuruaren eta egoitza kopuruaren artean dagon desorekea izan da. Modu berean, Josu Unanue EH Bilduko batzarkideak, “zerbitzu gehienak uriburuan dagozala eta eskualde batzuetan bat bera be ez dagola” azpimarratu dau.

Gobernuko taldeen aldetik, barriz, Juan Otermin batzordekide sozialistak estrategia barri hori “apustu integrala, errazoizkoa, ausarta eta koherentea” dala esan dau, eta arazoa “argi eta garbi” lantzen dauela. Modu berean, Irene Edesa Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleak, Estrategia Gaztearen “prebentzinozko izaerea eta genero ikuspegia” azpimarratu ditu, eta, Sailak egiten dauen apustuan sinisten dauela esan dau, bere eretxiz “gizarte inklusiboaren aldeko apustua” dalako.

## ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENAK

Eguneko Gai Zerrendea, Podemos Bizkaia aurkeztu eta EH Bilduren zuzenketa-eskea jaso dauen Arauz Besteke Proposamen baten eztabaideagaz eta ostean ez onartzeagaz osatu da. Ekimenak, beste Aldundi biakaz, Euzko Jaurlaritzagaz eta irakaskuntza arloko adituakaz eta gizarte zibileko erakunde feministakaz batera politika feministak aztertzeke eta horren bultzadea ebaluetako zentroa sortzea eskatzen eutsan Bizkaiko Foru Aldundiari, “emakumeen ekonomia, gizarte eta kultura arloetako eskubideen kontrako eragin negatiboen kontra burruka egiteko”.

EH Bildu eta Podemos Bizkaia ekimenaren alde agertu diran arren, bakarrak izan dira. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek esan dabe proposamenaren justifikazinoagaz bat datozen arren, hori egiturak bikoiztea izango litzatekela. Alfredo Oleak Euzko Abertzaleak taldearen aldetik, eta Juan Oterminek Euskal Sozialistak taldea ordezkatzuz, esan dabe Emakundek eta Maite Albiz emakumeei buruzko dokumentazino zentroak beteten dituela daborduko funtzino horreek. Kontrako eretxi horregaz bat egin dau Talde Mistoa; Talde Popularreko ordezkariak ez dau botorik emon, ez dalako aretoan egon.

Saioak, Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren atal batean, aurtongo Aurrekontu Orokorren Proiektuari zuzendutako aurrekontuaren ehunekoari jagokon puntuan dagon akats bat zuzentzeko Podemos Bizkaia taldeak aurkeztu dauen Arauz Besteke beste Proposamen bat be baeukan. Dana dala, proposamena ez da landu, akatsa daborduko zuzenduta dagolako.

NOTA DE PRENSA

25/06/18

## **La Diputada Teresa Laespada presenta ante los grupos junteros la nueva Estrategia Joven que el Servicio de Inclusión Social ha puesto en marcha**

La Diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha comparecido esta mañana a petición propia a fin de detallar la puesta en marcha de una nueva Estrategia Joven que tiene como principal objetivo atender a los casos de exclusión social entre jóvenes mayores de edad. Ésta, si bien integra el bagaje y la experiencia previa, pasa de los antiguos programas a una estrategia de atención integral en el que se prima la capacidad de decisión del propio joven.

La Estrategia Joven, tal y como ha explicado la responsable foral, se encuentra diseñada para proteger a las personas mayores de edad durante el tránsito hacia la vida adulta, aportándoles apoyos que permitan que desarrollen el nivel de autonomía suficiente como para que puedan poner en marcha sus proyectos de vida.

Esta nueva estrategia está dirigida tanto a “personas mayores de edad vulnerables procedentes del Servicio de Infancia” como aquellas que acceden a los Servicios de Inclusión Forales a través del instrumento de valoración de la exclusión.

Respecto a los que se encuentran en el primer caso, la Diputada ha manifestado que la entrada en el Sistema de inclusión supone “un salto brutal” sumado a el escaso hábito de tomar decisiones y una casi imposibilidad práctica de acceso al empleo. “Los trabajos requieren niveles de cualificación y desarrollo de competencias profesionales y personales que aún no han tenido tiempo de desarrollar en la mayoría de las ocasiones”, ha explicado Laespada. En el segundo caso se tratan, especialmente, de mujeres jóvenes que precisan apoyo para su empoderamiento o situaciones de violencia contra la mujer. A este respecto, la Diputada ha puesto en valor la presencia del enfoque de género en la propia estrategia.

Además de potenciar los programas no residenciales, la Estrategia Joven propone también una línea específica de apoyo a procesos de emancipación al colectivo de quienes fueron menores emigrantes no acompañados. Ésta se centrará en la eliminación de obstáculos burocrático – administrativos que suelen dificultar el propio proceso de emancipación.

Asimismo, otras de las iniciativas que se llevarán a cabo serán los alojamientos independientes, la Agencia de ocio y apoyo a la diversidad o el acompañamiento académico en el ámbito universitario mediante el programa Arrakasta. La Diputada ha resaltado también la apuesta por programas de inserción laboral que incluyan formación práctica entre los que resalta la puesta en marcha del primer Acelerador de Empleo.

Los recursos económicos destinados a llevar a cabo estas actuaciones ascienden, tras una reorientación de los mismos, a 5.410.000 euros. La suma de plaza del Servicio de Inclusión Social y del Servicio de Mujer, también se verá incrementada pasando de 162 a 302 plazas.

En la intervención de grupos el representante del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ha puesto el acento en la necesidad de que los jóvenes logren integrarse laboralmente, y ha propuesto llevar a cabo un programa similar a Arrakasta dirigido a la Formación Profesional; por su parte el apoderado del Grupo Popular, Eduardo Andrés, al ser una información completamente nueva, ha asegurado que su grupo estudiará lo transmitido hoy por la Diputada para valorarlo y realizar aportaciones más adelante.

La representante de Podemos Bizkaia, Eneritz de Madariaga, a pesar de valorar positivamente la inclusión de la perspectiva de género o la continuación del programa Arrakasta, ha manifestado que el resto “no son ninguna novedad”. Una de las críticas de la apoderada ha sido el desequilibrio entre el número de centros de día y centros residenciales. En la misma línea, el juntero del grupo EH Bildu, Josu Unanue, ha hecho hincapié en que “la mayoría de servicios están en la capital, y en algunas comarcas no existen”.

Por parte de los grupos del gobierno, sin embargo, el apoderado socialista Juan Otermin ha valorado esta nueva estrategia como “una apuesta integral, razonable, valiente y coherente” que aborda un problema de manera “clara”. De igual forma la representante del grupo Nacionalistas Vascos, Irene Edesa, ha destacado el “carácter preventivo y el enfoque de género” de la Estrategia Joven, y ha asegurado creer en la apuesta que hace el Departamento “porque es un apuesta por una sociedad inclusiva”.

#### PROPOSICIONES NO DE NORMA

El orden del día se ha completado con el debate y posterior rechazo de una Proposición No de Norma presentada por Podemos Bizkaia, y enmendada por EH Bildu. La iniciativa instaba a la Diputación Foral de Bizkaia a que colaborara junto con las otras dos Diputaciones, el Gobierno Vasco, así como con personas expertas del ámbito académico, y diferentes organizaciones feministas de la sociedad civil para crear un Centro de Estudio y Evaluación de Políticas Feministas para “luchar contra los impactos negativos impactos sobre los derechos económicos, sociales y culturales de las mujeres”.

A pesar de que la iniciativa ha sido defendida tanto por EH Bildu como por Podemos Bizkaia, no ha contado con el apoyo de ningún grupo más. Tanto Nacionalistas Vascos como Socialistas Vascos han aducido que, a pesar de compartir la justificación de la propuesta, esto supondría una duplicidad de estructuras. Alfredo Olea, por parte de Nacionalistas Vascos, y Juan Otermin, por parte de Socialistas Vascos, han manifestado que tanto Emakunde como el Centro de documentación de mujeres Maite Albiz ya cumplen esas funciones. A esta negativa se ha sumado también Grupo Mixto; el representante de Grupo Popular no ha emitido voto al no encontrarse en la sala.

La sesión contaba con un último punto relativo a una Proposición No de Norma de Podemos Bizkaia que instaba a subsanar un error de la página web de la Diputación Foral de Bizkaia, concretamente en el apartado del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad relativo al porcentaje del presupuesto destinado en el Proyecto de Presupuestos Generales de este año. Sin embargo esta ha sido retirada al haber sido solucionado.

